

AKTA, 2004KO OTSAILAREN 18KOA

Organoa: Udalbatzarra

Batzarra: osoko bilkura berezia

Deialdia: lehenengoa

Eguna: 2004/02/18

Ordua: Hasiera 19:30 – Amaiera 20:00

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak:

Alkatea: SANTIAGO GARMENDIA OLANO

Zinegotziak:

Santiago Fermin Garmendia Gorostidi

Jose Ignacio Irastorza Garmendia

Miguel Angel Garmendia Suquia

Idazkaria: MARIA ASUNCION VILLAR IRASTORZA

AZTERGAIK:

- 1.- 2004-03-14ko Hauteskudetako Mahaikideen aukeraketa egiteko zozketa.
- 2.- Legorreta, Itsasondo, Arama, Altzaga, Gaintza eta Zaldibiako gizarte zerbitzuak lanaldi erdiko gizarte langile berri batekin hornitzeko oinarriak aldatzeko proposamena.
- 3.- 2003ko udal lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena

1.- GAIK AZTERGAI ZERRENDAN SARTZEA

Izenburuko gaiak diktaminatu gabe daudenez, presakako arrazoiengatik, alkateak proposatzen du, udal batzarrak onestea gai horiek egun honetako aztergai zerrendan sartzea.

Alkatearen proposamena, aho batez onesten da, gaiaren eztabaidari ekiten zaiolarik, ondorengo garapenarekin:

2.- 2004-03-14KO HAUTESKUNDETAKO MAHAIKIDEEN AUKERAKETA EGITEKO ZOZKETA.

Indarrean dagoen Hauteskunde Erregimen Orokorren buruzko Lege Organikoaren 26. artikuluan dioenarekin bat etorriz, 2004ko martxoaren 14ean ospatuko diren hauteskundetako mahaikideen aukeraketa egiteko zozketa egiten da, ondorengo emaitzarekin:

MAHAIBURUA:	005. zenbakia - Aramburu Albeniz Luis Alberto
Mahaiburuaren 1. Ordez.:	054. zenbakia - Garmendia Urdalleta Jokin
Mahaiburuaren 2. Ordez.:	027. zenbakia - Garmendia Arruabarrena Garbiñe
1. MAHAIKIDEA:	075. zenbakia - Olaetxea Balerdi Gaizka
1. Mahaikidearen 1. Ordez.:	061. zenbakia - Gorostegui Berra Jose Ignacio
1. Mahaikidearen 2. Ordez.:	102. zenbakia - Zunzunegui Garmendia Juan M ^a
2. MAHAIKIDEA:	020. zenbakia - Blasco de Azcarate M ^a Rosario
2. Mahaikidearen 1. Ordez.:	106. zenbakia - Zunzunegui Olano Pedro M ^a
2. Mahaikidearen 2. Ordez.:	004. zenbakia - Alustiza Mugica Miren Idoia

3.- LEGORRETA, ITSASONDO, ARAMA, ALTZAGA, GAINZA ETA ZALDIBIAKO GIZARTE ZERBITZUAK LANALDI ERDIKO GIZARTE LANGILE BERRI BATEKIN HORNITZEKO OINARRIAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.

2003ko maiatzaren 15eko datarekin sinatu zuten hitzarmena, Legorreta, Itsasondo, Arama, Alzaga, Gaintza eta Zaldibiako udalek, aipatu herrietako oinarritzko gizarte zerbitzuak, lanaldi erdirako gizarte langile berri batez hornitzeko.

2003ko azaroaren 20ean egindako Osoko Bilkuran, Legorreta Zaldibia, Itsasondo, Gaintza, Arama eta Alzagako udalen plantiletarako gizarte laguntzaile baten lanpostua oposizio-lehiaketa libreko sistemaz betetzeko oinarriak onartu zituen Gaintzako Udalbatzarrak eta 2004ko urtarrilaren 02ko 1. zenbakia duen GAO-n argitaratu ziren oinarri hauek.

Gizarte Laguntzaileen Elkargoak aipatutako oinarriei jarritako errekurtoa jaso da Legorretako udaletxean 2004ko urtarrilaren 21ean. Elkargoak ukatu egiten du bere sailean sortutako lan-administratiboak burutzea lanpostuaren funtzioa denik eta aipatutako oinarrietatik funtzio hau kentzea eskatzen du. Era berean, administrari edo administrari laguntzaile bezala egindako zerbitzuengatik gehienez 2 puntu merezimendu bezala balioztatzen den bederatzigarren oinarriko paragrafoa kentzea eskatzen du.

2004ko otsailaren 11n udal ordezkariak Legorretako udaletxean burutu zuten bileran onartutakoa ikusi ondoren, bilera honetara bertaratutakoek

ERABAKITZEN DUTE:

Legorreta, Zaldibia, Itsasondo, Gaintza, Arama eta Alzagako udalen plantiletarako gizarte laguntzaile baten lanpostua oposizio-lehiaketa libreko sistemaz betetzeko, 2003ko azaroaren 20ean Udalbatzarrean Gaintzako Udalak onartutako oinarriak era honetan aldatzea:

Gizarte Laguntzaileen Elkargoak eskatu digulako:

- Hirugarren oinarritik (Lanpostuaren berezko funtzioak) **16 zenbakiarekin iragarritako funtzioa kentzea.**

- Oinarri honen lehenengo parrafotik esaldi hau kentzea – **eta bere sailean sortutako administrazio lanak.-**

Lehenengo parrafo honen atzean esaldi hau eransten zaio: Era guztietara zerbitzuaren beharraren arabera, lantokia, Legorretan, Zaldibian, Itsasondon, ..., finkatu ahal izango dute Udalek, eta aldaketa hauek, ez dute inoiz ordain ekonomiko zein lan-ordukoak jasotzeko eskubiderik emango.

- Bederatzigarren oinarritik (Lehiaketaldia) merezimendu bezala balioztatzen duen esaldi hau ezabatu egiten da – **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan administrari edo administrari laguntzaile bezala egindako zerbitzuengatik, gehienez 2 puntu –**

Eusko Jaurlaritzako Erakunde Politikarako eta Toki Administrazioarako Zuzendariak eskatu digulako:

- Laugarren oinarritik (Izangaien baldintzak) **55 urte bete gabe izateko baldintza kentzea.**

4.- 2003KO UDAL LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEKO PROPOSAMENA

2003ko maiatzaren 15eko datarekin sinatu zuten hitzarmena, Legorreta, Itsasondo, Arama, Altzaga, Gaintza eta Zaldibiako udalek, aipatu herrietako oinarrizko gizarte zerbitzuak, lanaldi erdirako gizarte langile berri batez hornitzeko.

2003ko azaroaren 20ean egindako Osoko Bilkuran, Legorreta Zaldibia, Itsasondo, Gaintza, Arama eta Altzagako udalen plantiletarako gizarte laguntzaile baten lanpostua oposizio-lehiaketa libreko sistemaz betetzeko oinarriak onartu zituen Gaintzako Udalbatzarrak eta 2004ko urtarrilaren 02ko 1. zenbakia duen GAO-n argitaratu ziren oinarri hauek.

2004ko otsailaren 11n udal ordezkariak Legorretako udaletxean burutu zuten bileran onartutakoa ikusi ondoren, bilera honetara bertaratutakoek

ERABAKITZEN DUTE:

Eusko Jaurlaritzako Erakunde Politikarako eta Toki Administrazioarako Zuzendariak eskatu digulako:

2004ko otsailaren 11n udal ordezkariak Legorretako udaletxean izandako bileran erabakitakoarekin bat etorriz, lanpostuen zerrendak aldatzea, eta lanpostu honetarako Autoa prest izateko baldintza ez kentzea eta ondorioz, **Lanpostuen Zerrendak aldatzea** eta gida karnetarekin batera **autoa izatea eskatzea**.

Besterik gabe bilera amaitu da, goiean adierazitako leku eta orduan.